


Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia

# BAROMETROA 2019

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko  
erakundeen datu nagusiak



Egilea: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatoki Taldea

*Barometroa 2019. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen datu nagusiak* izeneko txostena Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak eginiko proiektu bat da.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta EDE Fundazioak, Euskadi osorako jarduerak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren lankidetzarekin, sustatu duen Hirugarren Sektorearen sustapen-programa da.

bizkaiko hirugarren  
sektorearen behatokia

observatorio del  
tercer sector de bizkaia




Laguntzaileak:



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erakundeen eta sareen parte-hartzeari esker egin ahal izan da *Barometroa 2019. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen datu nagusiak*, txostena, eta batez ere, Sareen Sarearen lankidetzari esker, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako entitateen sareak biltzen dituen elkartea den aldetik.

Behatokiaren webgunean -[www.3sbizkaia.org](http://www.3sbizkaia.org)- dokumentu hau eskura daiteke, bai eta Behatokiaren gainerako argitalpenak ere.

Argitalpen horien bidez, Hirugarren Sektore Soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haien banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



## AURKIBIDEA

SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA.....	2
1. NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK .....	4
1.1. KOPURU NAGUSIAK .....	5
1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK? .....	6
2. JARDUERA .....	9
2.1. ZER ESPARRUTAN EGITEN DUTE LAN? .....	10
2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN? .....	11
2.3. NORAINO HEDATZEN DA HAREN EKINTZA? .....	12
2.4. ZER GERTAKIZUN ARTATZEN DITUZTE? .....	13
2.5. ZER KOLEKTIBORA BIDERATZEN DUTE EKINTZA? .....	13
2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE? .....	15
3. PERTSONAK .....	19
3.1. LAN-TALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK.....	20
3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK.....	24
4. EKONOMIA-BALIABIDEAK .....	25
4.1. ZER EKONOMIA-BALIABIDE DITUZTE? .....	26
4.2. NONDIK DATOR FINANTZAZIOA? .....	26
4.3. ZERTAN ERABILTZEN DITUZTE EKONOMIA-BALIABIDEAK? .....	27
5. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK .....	28
5.1. ZER KUDEAKETA-TRESNA ERABILTZEN DITUZTE? .....	29
5.2. ZER BESTE KUDEAKETA-PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE? .....	30
5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES-TALDEEI? .....	31
6. HARREMANAK .....	32
6.1. NOLAKOA DA HARREMANA BESTE ERAGILE BATZUEKIN? .....	33
6.2. NOLAKOAK DIRA HARREMANAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BAITAN? .....	34
7. DATUEN ALDERAKETA, 2014-2019 .....	35

## SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA

Euskal gizartearen gizarte-ehun zabala babestu eta sustatu beharreko bere berezko ezaugarrietako bat da, herritarren ekimen asketik sortutako erakundeen bidez bideratutako elkartasun antolatua. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea erakunde eta sare horiek sendotzeko helburuaz sortu zen, eta lehenetsuen artean, sektorea eta haren bilakaera ezagutzeko garrantzia nabarmentzen da.

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiak 015ean egindako Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriari<sup>1</sup> esker, lehen aldiz, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren argazki bat eduki ahal izan zen, ezaugarri nagusiekin eta haren ekarpenarekin eta egituraketaren funtsezko elementu batzuekin lotuta, baldintza kuantitatiboetan eta kualitatiboetan.

2018an, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Estrategiak –praktikan egungo araudi-esparrua sendotzen du– informazioa eguneratuta izateko garrantzia nabarmentzen du eta hau zehazten du: “sektoreari buruzko datu sistematikoen eta aldian behingo datuen erabilgarritasuna, sektorearen ezaugarriak eta ekarpena funtsezko oinarri bat da diagnostikorako, plangintzarako eta ebaluaziorako, eta sektorea egituratzen, erakundeak sektorearekin parekatzen eta aitortzen lagundu du eta lagunduko du” (33. jarduketa)<sup>2</sup>. Eta xede horretarako, sektorearen egoera, sustatze neurriak eta estrategiaren hedapenari buruzko aldizkako ikerketa- eta ebaluazio-ziklo bat abian jartzea ezarri zen, 6/2016 Legea<sup>3</sup>, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoarekin koherentea. Honek, biurteko txosten bat (barometroa) eta lau urteroko txostena (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren liburu zuria) barne hartzen ditu.

Horrela, Liburu Zuriaren edizio honek **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa** bere baitan hartzen du, eta liburu zuriaren eremuan landuta dagoenez, horren datu kuantitatiboen separata bat da. Barometroa arina eta erabilerraza da. Labor-labor, Euskadiko ekimen eta esku-hartze sozialeko erakunde eta sareei buruzko garrantzitsua den informazioa eskaintzen du.

---

<sup>1</sup> CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; ROMEO, Z.(2015). *Euskadiko Hirugarren Sektoreko Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia. Hemen eskuragarri: [http://www.3sbizkaia.org/wp-content/uploads/LIBRO-BLANCO\\_eus\\_2.pdf](http://www.3sbizkaia.org/wp-content/uploads/LIBRO-BLANCO_eus_2.pdf)

<sup>2</sup> EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. Hemenik hartuta: <https://www.sareensarea.eus/images/documentos/DocumentacionDeReferencia/EUSKADIKO-HIRUGARREN-SEKTORE-SOZIALA-SUSTATZEKO-ESTRATEGIA.pdf>

EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia. 2018-2020 Legealdiaren plana*. Hemenik hartuta: [https://www.euskadi.eus/contenidos/plan\\_departamental/24\\_plandep\\_xileg/eu\\_def/3.%20sektorea%20sustatzeko%20estrategia.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/24_plandep_xileg/eu_def/3.%20sektorea%20sustatzeko%20estrategia.pdf)

<sup>3</sup> EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2016ko maiatzaren 19koa, 94. zk. Hemenik hartuta: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096e.pdf>

Sei kapitulutan multzokatuta, txosten honen emaitzak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarri nagusiak ematen ditu aditzera, identitateari, jarduerari, sektorea osatzen duten pertsoneri, baliabide ekonomikoei, erabiltzen dituen kudeaketa-tresnei eta sektoreari eusten dioten barne- eta kanpo-harremanei dagokienez.

Txosten honetan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak jasotzen duen Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa hartzen dugu abiapuntutzat. Definizio horren arabera, sektore horretako parte dira egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten gizarte-ekimeneko erakundeak, eta esku-hartze sozialeko jardueren bidez, gizarteratzea, garapenerako lankidetzatza, zaugarritasun- edo bazterketa-, desberdintasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideen baliatze eraginkorra sustatzea xede nagusitzat dutenak. Horrez gainera, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko saretzat ditu besteen ordezkagarriak diren bigarren mailako eta maila altuagoko erakundeak, bai eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak ere, baldin eta jarduteko lurralde edo esparru geografikoan ez badago kolektibo hori ordezkatzeko sarerik.

Galdetegia betetzen lagundu duten 370 erakunde baino gehiagoren parte-hartze eskuzabalagatik ez balitz, ezin izango litzateke Liburu Zuria egin, ez eta Barometro honen bidez emandako datuen aurrerapena ere. Gure eskerrik onenak guztiei.

## Fitxa Teknikoa

### IKERKETAREN HELBURU DEN UNIBERTSOA:

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko

**3.938**

erakunde

LAGINA:

**371**

erakunde hartu dute parte ikerketan

### KONFIANTZA ETA ERRORE MAILA:

Konfiantzaren

**%95**

eta

**%4,84<sup>4</sup>**

errore-marjina

### DATUAK JASOTZEKO TEKNIKA:

onlineko galdetegia

(posta bidez paperean ere egina)

### DATUAK JASOTZEKO EGUTEGIA:

landa-lana 2019ko maiatzaren 7a eta

ekainaren 28a bitartean egon zen irekita

### METODOLOGIA OHARRAK:

konsultatu ohar metodologikoen inguruko

dokumentua informazio gehiago izateko

<sup>4</sup> Lagina estatistikoki adierazkorra da Euskadin. Lurralde historikoen araberako datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, Bizkaian errore-marjina % 6,6koa da gutxi gorabehera; Gipuzkoan, % 9,78koa gutxi gorabehera; eta Araban, % 12,15koa gutxi gorabehera. Horrez gain, txostenaren beste alderdi batzuekin lotuta, errore-marjina handitu egiten da laginarekin alderatuta, aztertutako kasuen lagina txikitu egiten baita. Hori gertatzen denean, oin-oharrak sartzen dira, datuak arretaz aztertzeko.


**BAROMETROA 2019**

# **NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK**



### 1.1. KOPURU NAGUSIAK

Kalkuluen arabera, 3.938 erakundek (2.246 Bizkaian, 1.130 Gipuzkoan eta 562 Araban) osatzen dute Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala; hau da, Euskadiko 1.000 biztanleko 1,8 erakundeko tasa<sup>5</sup>. Erakunde horiek gutxi gorabehera 38.525 enplegatu dituzte eta 158.599 boluntarioen gizarte-partaidetza bideratzen dute. 2018an, 1.736 milioiko bolumen ekonomikoa kudeatu zuten, euskal BPGren 2,3ren baliokidea<sup>6</sup>.




<sup>5</sup> 2019ko urrian, Euskadiko biztanleria 2.188.017 pertsonakoa zen: Bizkaian 1.142.853; Gipuzkoan 717.197; eta Araban 327.967. Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal estatistika.

<sup>6</sup> 2018an, Euskadiko BPG 76.808.704.000 €-koa izan zen: Bizkaiko BPG 38.919.895.000 €-koa; Gipuzkoakoa, 25.515.924.000 €-koa; eta Arabakoa, 12.372.885.000 €-koa. Iturria: EUSTAT. Hiru hileroko Kontu Ekonomikoak.




ERAKUNDE AKTIBOAK 2019AN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. ABSOLUTUAK, %, BIZTANLERIAREKIKO RATIOA, ORDAINDUTAKO PERTSONEN BOLUMENA, BOLUNTARIOEN BOLUMENA ETA BARNE-PRODUKTU GORDINAREKIKO RATIOA<sup>7</sup>



## 1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?

Elkarteak dira sektoreko figura juridiko nagusia. Hamar erakundetik bederzti elkarteak dira<sup>8</sup>.

ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA (%)



<sup>7</sup> Kudeatutako bolumen ekonomikoa adierazten duen BPGrekiko ehunekoa Lurralde Historiko bakoitzaren BPGrekiko kalkulaturako dago eta 2018ko prezio arruntetan. Era berean, 1.000 biztanleko erakundeen tasa Lurralde Historiko bakoitzaren biztanleria oinarri hartuta kalkulatu da.

<sup>8</sup> Figura juridikoaren arabera erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde guztizko) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.



10 erakundetatik ia 3k onura publikoaren aitortpena dute. Deklarazio horrek gizarteak lan hori aitortzen duela adierazten du, eta berekin dakar erakundearen xedeek interes orokorra sustatzeko joera izatea eta jarduera bazkide-tutako pertsonen mesede egitera soilik ez mugatuta egotea.

Erakundeen % 47,6 pertsona eta/edo familia hartzaileek zuzenean eraturakoak dira, eta horrek adierazten du erakundearen eta jardueraren pertsona eta kolektibo hartzaileen artean lotura egonkorra dagoela.

Entitateen % 97,8 baino gehiago oinarritzko erakundeak dira, eta bigarren eta hirugarren mailako sareek eta entitateek sektoreko erakunde guztien % 2,2 biltzen dute gutxi gorabehera<sup>9</sup>.

Kontsultatutako sareen erdiak gutxienez 11 erakunde biltzen dituzten entitateak dira, eta beste erdiak 11 erakunde baino gehiagok osatuta daude. Batez bestean sareetako bakoitzak 23 erakunde inguru biltzen ditu.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



<sup>9</sup> Erakundeen banaketa, oinarritzko erakundeak diren edo sareak diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

Erakundeen % 1,2 inguru gizarteratze-enpresak dira eta beste % 3,2 gizarte-enpresen sustatzaileak<sup>10</sup>. Horrenbestez, bazterketa-egoeran dauden kolektiboak laneratzea dute helburu.

Kontsultatutako erakundeen % 1,3k enplegu-zentro berezia du. Zentro horiek desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazten dute.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



<sup>10</sup> Erakundeen banaketa, gizarte-enpresak diren edo ez diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

**BAROMETROA 2019**

# **JARDUERA**






### 2.1. ZER ESPARRUTAN EGITEN DUTE LAN?

JARDUKETA-ESPARRUEN DEFINIZIOA ETA ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUKETA-ESPARRU NAGUSIAREN ARABERA (%)



Entitateen gehiengoak zeharkako gizarte-esparrua eta gizarte-zerbitzuena biltzen dituzte. Erakundeen % 36,5en jarduera nagusia lotuta dago adinekoen, etorkinen, emakumeen... eskubideen sustapenarekin. Erakundeen beste % 23,3k gizarte-zerbitzuen hornikuntzarekin lotutako jarduera dute<sup>11</sup>.

Beraren jarduera nagusia izan ez arren, 10 erakundetatik 6k adierazi dute zeharkako gizarte-esparruan garatzen dutela jarduera neurri batean, eta entitateen erdiak gizarte-zerbitzuen esparruan lan egiten duela esaten du. 10 erakundetatik ia 4 hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruan ari dira lanean, eta 3 erakundetatik 1ek osasunaren arloan garatzen du lana neurri batean.




## 2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?

Sektoreko 3 erakundetatik gutxi gorabehera 1ek 20 urte edo gehiagoko ibilbidea du (% 1 inguruk 50 urte edo gehiago ditu) eta 5 urte baino gutxiagoko erakunderik gazteenek guztizkoaren % 20,1<sup>12</sup> biltzen dute.

<sup>11</sup> Jarduketa-esparruaren arabera erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

<sup>12</sup> Eraketa-urtearen arabera erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta. Unibertso erakundeen % 8,23ren eraketa-data ezin izan da egiaztatu.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKETA-URTEAREN ARABERA. (%)



### 2.3. NORAINO HEDATZEN DA HAREN EKINTZA?

Erakundeen % 84,5en jarduera ez da Euskadiren esparrutik kanpo zabaltzen. Erakundeen % 34,7k jarduera kokaleku duen lurralde historikoan bideratzen du batez ere, eta beste % 28,7k lurralde batean baino gehiagoan egiten du lan (Euskadi). 5 entitatetatik gutxi gorabehera 1ek bere lana zehazki tokiko esparruan garatzen du (eskualdekoa, udalekoa edo esparru txikiagokoa).

ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUKETA-ESPARRU GEOGRAFIKOAREN ARABERA. (%)




#### 2.4. ZER GERTAKIZUN ARTATZEN DITUZTE?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen % 22,6k bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 15,1ek, desgaitasuna duten pertsonak; % 5,4k, babesgabetasun-egoeran daudenak; eta % 3,6k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak.

Gainerakoan (erdiak baino gehiago) jardueraren hartzaile nagusiak, besteak beste, zaugarritasun- edo desberdintasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATUTAKO GERTAKIZUNAREN ARABERA. (%)




#### 2.5. ZER KOLEKTIBORA BIDERATZEN DUTE EKINTZA?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek askotariko pertsona hartzaileak dituzte kolektibo nagusi gisa, besteak beste:


- Haurrak eta nerabeak (kontsultatutako erakundeen % 17,8ren kolektibo nagusia da).
- Adinekoak (% 12,4ren kolektibo nagusia).
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak (% 11,8ren kolektibo nagusia).
- Pobrezian dauden edo pobrezian egoteko arriskuan dauden pertsonak (% 11,8ren kolektibo nagusia).
- Emakumeak (% 11,5en kolektibo nagusia).

ERAKUNDEEN BANAKETA, EKINTZA ZER KOLEKTIBO NAGUSIRI BIDERATZEN DIREN KONTUAN HARTUTA. (%)



Kolektibo nagusia aintzat hartzeaz gain, erakundeak berak arta ditzakeen guztiak ere aintzat hartzen baditugu, erakundeen gutxi gorabehera erdiek emakumeak eta gazteak neurri handiagoan edo txikiagoan artatzen dituztela erreparatu dugu. Guztizkoaren % 42,2k egiten du lan haurrekin eta nerabeekin, eta era berean, oso ugariak dira adinekoekin (% 35,8), etorkinekin (% 34,4) edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonekin (% 34,4) lan egiten duten erakundeak.

KOLEKTIBO BAKOITZARI ZUZENTZEN ZAIZKION ERAKUNDEAK. (%)





## 2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde gehiagoak (% 78,3) zerbitzuen hornikuntzarekin batera, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste gizarte-funtzio batzuk egiten ditu.


ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)



Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek gizarte-premiak asetzen dituzte eta premia duen biztanleriari baliaabideak gerturatzeko, baliaabideetarako sarbidea erraztuz.

Zehazki, % 85,5ek zerbitzuren bat edo beste ematen du (sarritan beste funtzioen bat egiten duela alde batera utzita), eta beste % 14,2k gertakizunarekin, sentsibilizazioarekin, ikerketarekin... lotutako jardueretan egiten du lan soilik.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZA EGITEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen erdiak urtean 200 erabiltzaile baino gutxiago ditu, eta laurdenak, berriz, urtean 616 erabiltzaile baino gehiago artatzen ditu<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> Erabiltzaileen estatistikak kalkulatzeko, zerbitzu motaren batez hornitzen duten erakundeak izan dira kontuan eta erabiltzaileen artean 300.000 pertsona ego gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde desitxuratzailatzat joak izateagatik. Azken erakunde horien balioek nabarmen handitzen dute laginaren bariantza (hemendik aurrera, erakunde "outlierrak").


Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen % 35,3k erantzukizun publikoko zerbitzu-zorroetan aintzat hartutako zerbitzuak ematen dituzte<sup>14</sup> (horrez gainera, gehiagoak zorro horietan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ere ematen dituzte). Bestalde, beste % 64,7k erantzukizun publikoko zorroetan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ematen dituzte.

ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Sektoreko entitateek ematen dituzten zerbitzuen artean, hauek dira azpimarragarrienak: aisialdiko jarduerak (% 20,6ren jarduera nagusia da), informazio- eta orientazio-zerbitzuak (% 17,8), prestakuntza eta hezkuntza (% 9,5), komunitatearen garapena (% 9) eta gizarte-heziketako esku-hartzea (% 8,8).

ERAKUNDEEN BANAKETA, EMATEN DUTEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARABERA. (%)



<sup>14</sup> Erantzukizun publikoko zerbitzu esaten zaie erakunde publikoek hartzaileri erabilgarri izatea eta sarbidea edukitzea bermatu behar dietenak eta araudietan, zorroetan edo prestazioen katalogoetan eta beren kompetentziako zerbitzuetan araututa daudenak.


Zehazki, kontsultatutako entitateen % 62,2k aisialdiko zerbitzuak ematen ditu. Halaber, erakundeen erdiak baino gehiagok prestakuntza- eta hezkuntza-eskaintza dute (% 57,4). Gutxi gorabehera 10 erakundetatik 4k esku-hartze psikosoziala egiten dute (% 41,8) eta antzeko ehuneko batek gizarte-laguntza egiten du (% 41,3), gizarte-heziketako esku-hartzea (% 39,9), aholkularitza eta orientazioa (% 39,9) eta informazio- eta orientazio-zerbitzuren bat du.

ZERBITZUETAKO BAKOITZA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



Erakundeek garatutako gizarte-funtzioen artean, hauek nabarmentzen dira: sentsibilizazioa (erakundeen % 57,5entzat funtsezkoa da bere gizarte-funtzioen artean), salaketa eta eskubideen sustapena (% 14,6) eta boluntarioen sustapena, elkarrenganako laguntza eta gizarte-partaidetza (% 12).

ERAKUNDEEN BANAKETA, EGINDAKO GIZARTE-FUNTZIOAREN ARABERA. (%)



Entitateen gehiengo zabalak sentsibilizazio-ekintzak egiten ditu (% 84,2). Hala, 10 erakundetatik 6 inguruk gizarte-partaidetza eta elkarrenganako laguntza sustatzearekin lotutako jarduerak garatzen ditu (% 61,8), eta beste horrenbestek salaketara eta eskubideen sustapenera bideratutako ekintzak (% 57,9).

BESTE GIZARTE-FUNTZIOETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



BAROMETROA 2019


# PERTSONAK



**3.1.LAN-TALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK**

Erakundeen % 87,9tan boluntarioen presentzia esanguratsua da, erakundea osatzen dutenen erdia edo gehiago baitira. Berez, erakundeen % 42,8 oso-osorik boluntarioz osatuta daude.

ERAKUNDEEN BANAKETA, LAN-TALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)




Erakundeen % 57,2k ordaindutako langileak dituzte lan-taldeetan, eta gainerakoetan, berriz, ez dago ordaindutako langilerik.

LAN-TALDEETAN ORDAINDUTAKO PERTSONAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Nahiz eta ohikoena (kasuen % 72,9tan) ordaindutako langileak erakundea osatzen duten pertsonen (ordaindutako pertsonak + boluntarioak) laurdena baino gutxiago izatea izan, erakundeen % 14,6tan soilik dira gehiengoak ordaindutako langileak.

ERAKUNDEEN BANAKETA, LAN-TALDEAN ORDAINDUTAKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Ohikoena da erakunde batean boluntarioen bolumena 10 eta 50 pertsona artean izatea. Ohikoena 10 boluntario inguru izatea den arren, batez bestean 37 boluntario izaten dira<sup>15</sup>, eta horien % 59,5 emakumeak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, BOLUNTARIOEN BOLUMENAREN ARABERA ETA BORONDATEZKO PERTSONEN SEXUAREN ARABERAKO ERAKETAREN ARABERA. (%)



Erakundeek ordaindutako langileak dituztenean ohikoena da (10 erakundetatik 7tan) ordaindutako 10 pertsona baino gehiago ez izatea, eta kasuen % 35,7tan 3 pertsona baino gutxiagok jasotzen dute ordainsaria.

Ohikoena ordaindutako pertsona bat izatea den arren, batez bestean 13 ordaindutako pertsona<sup>16</sup> izaten dira, eta horien % 70,5 emakumeak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ORDAINDUTAKO PERTSONEN BOLUMENAREN ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEN SEXUAREN ARABERAKO ERAKETAREN ARABERA. (%)



<sup>15</sup> Boluntarioen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 boluntario edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

<sup>16</sup> Boluntarioen estatistikak kalkulatzeko, ordaindutako pertsonak dituzten erakundeak hartu dira aintzat eta ordaindutako 250 pertsona edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

Kalkulatu da erakundeen % 20,5 inguruk ordaindutako langileen artean desgaitasuna duten pertsonak dituztela (enplegu-zentro bereziak kontuan izan gabe)<sup>17</sup>.

DESGAITASUN-ZIURTAGIRIA DUTEN ORDAINDUTAKO PERTSONAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Bestalde, erakundeen % 20,9 inguruk ordaindutako pertsonen artean espainiar nazionalitatea ez duten pertsonak dituzte (gizarteratze-prozesuan dauden datuak aintzat hartu gabe)<sup>18</sup>.

ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO ORDAINDUTAKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



Ordaindutako pertsonen % 32k lanaldi partzialeko kontratua dute eta emakumeek 10 kontratu partzial horietatik 8 dituzte.

ORDAINDUTAKO PERTSONEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA LANALDI PARTZIALEKO ORDAINDUTAKO PERTSONEN SEXUAREN ARABERAKO ERAKETAREN ARABERA. (%)



<sup>17</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak gutxi gorabehera % 8,35eko errore-marjina inplikatzeko baitu.

<sup>18</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak gutxi gorabehera % 6,41eko errore-marjina inplikatzeko baitu.



Kontratu motari dagokionez, ordaindutako pertsonen % 66,3k kontratu mugagabea edo finkoa dute, eta gainerakoek beste kontratu motaren bat dute (aldi baterakoa, aldizkako kontratu finkoa eta abar).

ORDAINDUTAKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. (%)



Langileen % 12 inguruk karguren bat edo ordaindutako erantzukizunen bat hartzen du bere gain erakundeetan. Gizonezkoen artean (% 12,5) pixka bat handiagoa da tasa hori emakumezkoen artean (% 11,90) baino.

ERANTZUKIZUNEN POSTUA DUTEN ORDAINDUTAKO LANGILEAK, SEXUAREN ARABERA. (%)

**Erantzukizun-postua-ORDAINPEKO LANGILEAK**



**3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK**

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko elkarteek batez bestean 260 bazkide dituzte, nahiz eta kontuan izan behar den elkartearen erdia, gutxi gorabehera, 100 bazkidez edo gutxiagoz<sup>19</sup> osatuta dagoela. 10 bazkidetatik 6 emakumezkoak dira, eta 4, gizonezkoak<sup>20</sup>.

BAZKIDEEN ERAKETA, SEXUAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



Kalkuluen arabera, sektoreko erakundearen % 44,1 inguruk emaileak ditu, batez ere ohiko emaileak (10 kasutatik 8). Batez bestean, erakunde bakoitzak ohikotasunez diru-ekarpenak egiten dituzten 65 pertsona ditu. Hala ere, gogoan izan behar da erakundearen erdiak ez dituela ohiko 12 emaile baino gehiago<sup>21</sup>.

EMAILEEN ERAKETA, MOTAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



<sup>19</sup> Bazkideen estatistikak kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira kontuan (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundearen % 90 dira) eta 5.000 bazkide edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

<sup>20</sup> Bazkideen sexuaren araberako desagregazioa kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira aintzat.

<sup>21</sup> Ohiko emaileen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 emaile edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

BAROMETROA 2019

# EKONOMIA-BALIABIDEAK

4

#### 4.1. ZER EKONOMIA-BALIABIDE DITUZTE?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen % 80 erakunde txikiak edo ertainak dira, eta 300.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte. Egiaz, erakundeen erdiak kudeatzen duen diru kopurua 49,386.8€-ren azpikoa da.

Oso diru kopuru desberdinak esku artean dituzten erakundeak daude. Erakundeen % 7,6k milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen dituzte, eta sektoreko entitateen % 31,7ren diru-sarrerak 12.000 €-ren azpikoak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, 2018KO DIRU-SARREREN ARABERA. (%)



Erakundeen erdia baino gehiagoren ekonomia-emaiza 2018an kontuak orekatuta izatea izan zen. Erakundeen % 26,9k superabita izan zuen, eta beste % 20,8k defizita.

ERAKUNDEEN BANAKETA, 2018KO EKITALDIKO EMAITZAREN ARABERA. (%)




#### 4.2. NONDIK DATOR FINANTZAZIOA?

Erakundeen diru-sarreraren % 56 finantzazio publikoko iturrietatik dator, eta % 44, finantzazio pribatutik. Finantziario publikoaren barne, diru-laguntza publikoak nabarmentzen dira, batez bestean, erakundeen diru-sarreraren gutzizkoaren % 38 baitira. Finantzazio pribatuan, bazkideen edo afiliatuen kuotak nabarmentzen dira, batez bestean, erakundeen diru-sarreraren gutzizkoaren % 17,9 baitira.




DIRU-SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, SEKTOREKO FINANTZAZIO OSOAREKIKO. (%)



#### 4.3. ZERTAN ERABILTZEN DITUZTE EKONOMIA-BALIABIDEAK?

Erakundeek gastuaren % 82,6 jardueraren edo emandako zerbitzuen gastua ordaintzeko erabiltzen dute, eta zeharkako kudeaketa-gastuak batez bestean guztizko gastuaren % 12,1 biltzen dute.

GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ARABERA. (%)



**BAROMETROA 2019**

**KUDEAKETA- ETA  
KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK**



### 5.1. ZER KUDEAKETA-TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?


Erakundeek askotariko kudeaketa-tresnak dituzte (ebaluazio-sistemak, berdintasun-planak, kode etikoak eta abar) entitateek ongi funtziona dezaten. Batzuetan, nahiz eta ohikoena ez izan, tresna formalizatuak dira. Beste batzuetan, aldiz, aldian behingo ekintzak izaten dira. Ebaluazio-sistemak edo Berdintasun Planak dira estandarizatuenetako batzuk.

4 erakundetatik 1ek kode etikoa dute, eta entitateen beste % 34,8k kode horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen dituzte, idatziz koderik izan ez arren. 10 erakundetatik ia 4k proiektuen edo jardueren emaitzak edo inpaktua ebaluatzeko sistema formalizatua dute, eta beste % 34,3k horrekin lotutako ekintzak garatzen ditu.

10 erakundetatik ia 7k gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 28,9k Berdintasun Plana dute. Entitateen % 45,5ek ez baztertzearekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 13,2k alderdi horri lotutako Protokoloa bat dute.

Entitateen % 43,4k gardentasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 9,1ek Gardentasun Plan bat dute.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ZENBAIT KUDEAKETA-TRESNA ZENBATERAINO BARNERATUTA DITUZTEN KONTUAN HARTUTA. (%)




## 5.2. ZER BESTE KUDEAKETA-PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE?

Erakundeen % 14,1ek kalitate-ziurtagiriren bat du.


ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE-ZIURTAGIRIRIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Ba al du zuen erakundeak kalitateko ziurtagiririk?




ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATARIK BAXUENAREN ETA ALTUENAREN ARTEKO ALDEAREN ARABERA. (%)



Soldata baxuenaren eta altuenaren arteko distantzia

Erakundeen % 63,2tan, soldatarik baxuenaren eta altuenaren arteko aldea gehienez heren baten baliokidea da; hau da, erakundeak soldata txikiena duenak soldata handiena duenak baino % 33 gutxiago kobratzen du<sup>22</sup>.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEKO ORGANOETAN EDO BATZORDEETAN BOLUNTARIOEK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Erakundeen % 85,7tan, boluntarioek erabakiak hartzen dituen erakunde organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute. Erakundeen % 17,3tan boluntarioen erdiak edo gehiagok hartzen dute parte, eta % 29,5etan, denek<sup>23</sup>.

Ordaindutako langileak dituzten erakundeen % 49,4tan, ordaindutako langileen erdiak edo gehiagok erabakiak hartzen dituen erakunde organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute. Kasuen % 33tan, langile guztiek hartzen dute parte batzorde edo organo horietan<sup>24</sup>.

<sup>22</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoak kalkulatzeko erabili den laginak gutxi gorabehera % 13,37ko errore-marjina inplikatzeko baitu.

<sup>23</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoak kalkulatzeko erabili den laginak gutxi gorabehera % 7,16ko errore-marjina inplikatzeko baitu.

<sup>24</sup> Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoak kalkulatzeko erabili den laginak gutxi gorabehera % 9,13ko errore-marjina inplikatzeko baitu.




### 5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES-TALDEEI?

Erakundeen % 83 inguruk entitatearen urteko memoria nahiz kontuen egoerari buruzko informazio helarazi ohi diete aldizka interes-taldeei.

Horrez gain 4 erakundetatik gutxi gorabehera 3k entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa nahiz gobernu-organoen eraketari buruzkoa helarazi ohi diete aldizka interes-taldeei.

Neurri txikiagoan bada ere, erakundeen ehuneko esanguratsu batek jakinarazten die interes-taldeei helburuak zenbateraino bete dituzten eta jarduketek zer inpaktu izan duten (10etik 6 inguruk). Erakundeek entitateko pertsoneri buruzko informazioa igortzea ez da horren ohikoa (10etik 4k egiten dute).

ERAKUNDEEN BANAKETA, INTERES-TALDEEI ASKOTARIKO INFORMAZIOA HELARAZI OHI DIETEN KONTUAN HARTUTA. (%)



BAROMETROA 2019

# HARREMANAK

# 6


### 6.1. NOLAKOA DA HARREMANA BESTE ERAGILE BATZUEKIN?

Herri-administrazioiko organismo guztien artean, erakundeek batez ere udalekin dute harreman estua. Erakundeen % 72,9ren esanetan, harreman dezente edo harreman handia dute udal mailako administrazioarekin; % 60k, foru-aldundiarekin; eta % 44k, Eusko Jaurlaritzarekin.

Halaber, gizarte-mugimenduekin ere nolabaiteko loturak dituzte (kontsultatutako entitateen % 64,1ek haiekin harreman dezente edo harreman handia dutela diote) eta unibertsitateekin (% 41,5) ere bai.

Beste eragile batzuekiko harremana nabarmen txikiagoa da. Zehazki, sektoreko erakundeen % 30,1en esanetan, beste sektore batzuetako enpresekin harreman edo lankidetzaren nahiko estua dute; % 29,1ek banku-fundazioekin; % 23,7k Elizarekin; % 18k alderdi politikoekin; % 11,3k sindikatuarekin; eta % 10,7k enpresa-elkartekin.

ZENBAIT GIZARTE-ERAGILEREKIN HARREMAN DEZENTE EDO HANDIA EDO LANKIDETZA DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)



## 6.2. NOLAKOAK DIRA HARREMANAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BAITAN?

10 erakundetatik 6 baino gehiago bigarren mailako erakunde baten edo ekimen baten kide da (sareak, federazioak, taldeak, plataformak...), eta horrek adierazten du antzeko erakundeen artean harremana dagoela, hausnarketarako eta elkarri informazioa emateko espazioak dituztela. Batez bestean, erakunde bakoitza honelako 2 edo 3 saretako kide da.

ERAKUNDEEN BANAKETA, SARE BATEKO KIDETASUNAREN ARABERA. (%)

**Bigarren mailako** erakunde edo ekimenen baitan (sareak, federazioak, plataformak, elkarteak...) al dago?



**BAROMETROA 2019**

**DATUEN ALDERAKETA  
2014-2019**





## NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK

TXOSTENA	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
Erakunde kopurua	3.500	<b>3.938</b>	▲ +438
Erakunde kopurua 1.000 biztanleko	1,6	<b>1,8</b>	▲ +0,2
Boluntarioak	125.203	<b>158.599</b>	▲ +33.396
Ordaindutako langileak	35.907	<b>38.525</b>	▲ +2.618
Kudeatutako bolumen ekonomikoa %, erreferentziako lurraldearen BPGrekiko	2,2	<b>2,3</b>	▲ +0,1
Sektoreko erakundeek esku artean ibilitako bolumen ekonomikoa (milioi euro)	1.451	<b>1.736</b>	▲ +285
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eratutako erakundeen %	49,3	<b>47,6</b>	▼ -1,7
Erabilera publikoaren deklarazioa duten erakundeen %	27	<b>29,1</b>	▲ +2,1
Sektoreko erakundeen guztizkoarekiko elkarteen %	89,6	<b>89,9</b>	▲ +0,3
Gizareratze-enpresak sustatzen dituzten erakundeen %	-	<b>3,2</b>	-
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen (sareak) kopurua	85	<b>87</b>	▲ +2

## JARDUERA

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
Zeharkako gizarte-esparruko (edo zibikoa) erakundeen %	33,7	<b>36,5</b>	▲ +2,77
Gizarte-zerbitzuen esparruko erakundeen %	25,3	<b>23,3</b>	▼ -2
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen %	42,1	<b>33,8</b>	▼ -8,3
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) %	13,4	<b>20</b>	▲ +6,6
Autonomia-erkidegoaren esparrua gaintzen duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeen %	15,2	<b>15,5</b>	▲ +0,3
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeen %	58,1	<b>63,4</b>	▲ +5,3
Tokiko mailan (eskualdea, udalerrikoa edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeen %	26,7	<b>21,1</b>	▼ -5,63
Jarduera emakumei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen %	47,6	<b>49,3</b>	▲ +1,7
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	93,4	<b>85,8</b>	▼ -7,6
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste gizarte-funtzio batzuk) egiten dituzten erakundeen %	75,1	<b>92,5</b>	▲ +17,4
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	55	<b>62,2</b>	▲ +7,2
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen %	45,1	<b>57,9%</b>	▲ +12,85



## PERTSONAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
Emaileak (ohikoak edo aldizkakoak) dituzten erakundeen %	-	44,1	-
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeen %	87	87,9	▲ +0,9
Oso-osorik boluntarioz osatutako erakundeen %	46	42,8	▼ -3,2
Ordaindutako pertsonak dituzten erakundeen % (boluntarioak eta ordaindutako pertsonak dituzte)	54	57,2	▲ +3,2
Kontratutako 50 pertsona baino gehiago dituzten erakundeen % (ordaindutako langileak dituzten erakundeen gutzizkoarekiko)	10	9,4	▼ -0,6
Kontratutako 3 pertsona baino gutxiago dituzten erakundeen % (ordaindutako langileak dituzten erakundeen gutzizkoarekiko)	38	35,7	▼ -2,3
Erakunde txikien eta ertainen %, gehienez 10 ordaindutako langile dituzte (ordaindutako langileak dituzten erakundeen gutzizkoarekiko)	71,1	71,7	▲ +0,6
Boluntarioen artean emakumeen batez bestekoa %	56,5	59,5	▲ +3
Ordaindutako pertsonen artean emakumeen batez bestekoa %	68,2	70,5	▲ +2,3

## BALIABIDE EKONOMIKOAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen %	9	7,6	▼ -1,4
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen %	32	31,7	▼ -0,3
Emaizta ekonomikoa superabita izan duten erakundeen %	-	26,9	-
Sektorearen finantzazio publikoaren batez bestekoa %	55,5	53,6	▼ -1,9
Hitzarmen eta kontratu publiko bidezko finantzazio publikoaren batez bestekoa %, sektorearen finantzazio osoarekiko	17,9	16,3	▼ -1,6
Sektorearen berezko finantzazioaren (emateak, zerbitzuak ematea, salmentak) batez bestekoa %	38,1	37,8	▼ -0,3
Diru-laguntza publikoen bidezko finantzazioaren %, finantzazio osoarekiko	37,1	38,1	▲ +1
Zuzenean jardueretara eta zerbitzuetara bideratutako erakundearen gastuaren %	85,4	82,6	▼ -2,8
Kanpoko kontu-ikuskaritzaren bat egin duten erakundeen %	26	28	▲ +2



## KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
Emaitzak ebaluatzeko sistema (formalizatua) ezarri duten erakundeen %	35,	38,3	▲ +3,3
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	21,8	28,9	▲ +2,2
Gardentasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	-	9,1	-
Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen %	-	14,1	-
Interes-taldee jardueren memoriari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	86,5	83,4	▼ -3,1
Interes-taldee jardueren inpaktuari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	52	61	▲ +9
Kontuen egoerari buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	80,8	83,5	▲ +2,7
Entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	70,1	74,9	▲ +4,8

## HARREMANAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroa.	Desberdintasuna 2019-2014
<b>Datuen bilketa-data</b>	2014	2019	
Udalekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	72,9	-
Foru-aldundiekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	60	-
Eusko Jaurlaritzarekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	44,4	-
Gizarte-mugimenduekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	64,1	-
Unibertsitateekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	41,5	-
Enprekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	19,8	30,1	▲ +10,3
Alderdi politikoekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	14,5	18	▲ +3,5
Bigarren edo hirugarren mailako entitatearen bateko kide diren erakundeen %	58,7	66,4	▲ +7,7